

BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA**PRIM 13**

Egilea eta data: Jose Clemente de Osinalde; 1900

Deskribapena

Mehelin arteko eraikina, bi fatxada dituena. Jatorriz erdisotoa, bardeea eta hiru goi oin dituena, gehi 1925eko jasodura bat fatxada planoan (jatorrizko estalkipea berrituta edo ordezkaturik). Harlanduzko fatxada, jasodura izan ezik –zeramika gorri amaituta dago eta azpadurak margotuta ditu–. Zurezko begiratokia du Gernikako Arbolaren Pasealekuko fatxadaren erdialdeko baoan.

Babes erregimena

- 1.- Erregimen orokorra.
 - Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
 - Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
- 2.- Berariazko erregimena.
 - A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: jasodura (4. goi oina).
 - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; begiratokia.
 - C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
 - * Eraikin honen zein ondoko Prim 15eko erlaitzen kokalekua modu globalean eta koordinatuta zehaztuko da, egoki jotzen den hirigintza dokumentua (xehetasun azterlana, eta abar) formulatuta. Horretarako Prim 17ren erlaitza hartuko da erreferentziatzat.
 - * Erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzearekin loturikoak.